



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2016KO ABENDUAREN SEKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2016.12.05

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Juana M. Vertiz Albiasu andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Mendiko lanen esleipena.
- 4.-2017ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespina.
- 5.-2017ko tipoak eta zergak.
- 6.-Migratzaileen egunari buruzko atxikimendua.
- 7.-Nafarroa Bizirik fundazioaren idatzia.
- 8.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 9.-Korrika: diru laguntza eskaera.
- 10.-Gaindegia: diru laguntza eskaera.
- 11.-ADEMNA: diru laguntza eskaera.
- 12.-Larrialdi humanitarioetarako Nafarroako suhiltzaile taldea: diru laguntza eskaera.
- 13.-Larretako lurra saltzeko esleipena.
- 14.-Etxeetako ur aberien moldaketak.
- 15.-Udalbidetako hitzarmenaren onespina.
- 16.-Alkatearen ebazpenak.
- 17.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko azaroaren 7an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-JUANA M. VERTIZ ALBIASU ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Juana M. Vertiz Albiasu andreak, Goiko Irulegi alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 231.A. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juana M. Vertiz Albiasu andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.

Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak emandako 579/2016 ebazpenaren bidez, ekainaren 24koa, toki entitateek eta eragile pribatuek sustatzen dituzten basolanetarako laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onesten ditu 2016-2017 ekitaldirako.

Udal honek, kontuan hartuz landaketa lanak negu aldian egitea beharrezkoa dela, erabaki zuen ondorengo enpresei gonbidapena igortzea abenduaren 5erako proposamenak aurkezteko: Repoblaciones Etxarte S.L., Carlos Txoperena Matxikote, Berdabio Basogintza S.L. eta Pako Alzuri S.L.

Lanen aurrekontua hauxe da: 6.596,29 euro, Bez barne.

Epearen barne ondorengo proposamenak aurkeztu dira:

-Repoblaciones Etxarte S.L.: 6.397,43 euro, BEZ barne.

-Berdabio Basogintza S.L.: 6.596,29 euro, BEZ barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 1) Repoblaciones Etxarte S.L. enpresari aipatutako landaketa lanak esleitzea, 6.397,43 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basartea S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

2) Repoblaciones Etxarte S.L. enpresari jakinaraztea kontratua sinatzeko 255,90 euroko fidantza aurkeztu behar duela eta lanak 2017ko otsailaren 28rako eginak egon behar dutela.

3) Ebazpen hau aurkeztu dire enpresa guztiei jakinaraztea.

4.-2017KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

4.1.-2017ko aurrekontuaren egitasmoa eta exekuzio oinarriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

1) 2017ko aurrekontuaren eta exekuzio oinarrien espedientea hasiera batean onartzea.

2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

4.2.- Arantzako Udaleko 2016ko plantilla organikoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2017ko Arantzako Udaleko plantilla organikoa hasiera batean onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

5.-2017KO TIPOAK ETA ZERGAK.

Aztertu ondoren indarrean dauden karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Orain arteko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak mantentzea eta ez igotzea.
- 2) Katastroaren balorazio txostena onesten ez bada, katastroko tipoak berdina izanen dira.
- 3) Katastroaren balorazio txostena onetsia badago: kontribuzioaren tipoa 2016ko hiri ondasunetik kobratutako kopurua berdina izateko portzentaia kobratuko da.

Iñigo Sarrias Zoco jauna sartu da bilera aretora.

6.-MIGRATZAILEEN EGUNARI BURUZKO ATXIKIMENDUA.

Nazio Batuen Asanblada Orokorrak 55/93 Ebazpenean munduan dagoen migratzaile kopuru handia kontuan hartuta eta haien giza eskubideak modu eraginkorrean eta osoki babesteko beharra ikusita, abenduaren 18a Migratzailearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzea erabaki zuen.

Eskasak eta bidegabeak diren baldintzetan bizi eta lan egiten duten pertsonak gehiegi dira: 232 milioitik gora. Askok beren bizitza itsasoan arriskatzten dute aterpe bila. Aurten Mediterraneoan giza krisia larriagotu da. Izan ere, beren jatorriko herrialdeetako tragedietatik ihesean Europara iristen saiatzen den pertsona kopurua are gehiago igo da. 2014. urteaz geroztik 10.000 migratzaile baino gehiagok Mediterraneoan bizia galdu dute. 2016. urtean inoiz baino pertsona gehiago hil dira Mediterraneo itsasoan. Azken hamar hilabeteetan, 4.400.

Egoera honen aurrean, Atarrabia, Iruñea, Lizarra, Tafalla eta Uharteko Harrera Hiriak, hala nola, HelpNa taldea (suhiltzaileak) eta Barañain Errefuxiatuekin, asanbladan bilduta, pertsona migratzaileen nazioarteko egunaren harian (abenduaren 18a) Iruñean manifestaldi handi bat aurrera eramatea erabaki dugu. Jakin badakigu mugitzeko arrazoiak era askotarikoak direla: giza bidegabekeriak, gatazka armatuak, klima-aldaketa...

Hau guztiarengatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Pertsona migratzaile eta errefuxiatuen integrazioa baimenduko duten harrera politiken garapenari bere babesa adieraztea.
- 2) Heldu den abenduaren 17an Gazteluko Plazatik 12:00etan "MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUAK ONGI ETORRI" "BENETAKO HARRERA, ORAIN!" lemapean irtengo den manifestaldira atxikitzea.
- 3) Akordio hau manifestaldiko antolakuntzari eta komunikabideei bidaltzea.
- 4) Jendartea manifestazioan parte hartzera animatzeko deialdia zabaltzea.

7.-NAFARROA BIZIRIK FUNDAZIOAREN IDATZIA.

Ikusirik Nafarroa Bizirik Fundazioak interpretazio zentroa eraikitzeke igorritako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz 2016ko aurrekontuan ez dagoela aurreikusi horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroa Bizirik Fundazioari eskatutako diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

8.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak aurkeztutako diru laguntza eskaera, 2017. urterako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluari 100,00 euroko diru laguntza ematea eskatutako helburuentzat.

9.-KORRIKA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Korrikak aurkeztutako idatzia, 2017. urtean 20. edizioa antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2017ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

10.-GAINDEGIA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Gaindegiak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia betetzen duen xederako..

Kontuan hartuz 2016ko aurrekontuan ez dagoela aurreikusi horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaindegiari diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

11.-ADEMNA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik ADEMNA elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Nafarroako esklerosi anizkoitzaren eritasuna duten bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. .

Kontuan hartuz 2016ko aurrekontuan ez dagoela aurreikusi horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) ADEMNA elkarteari eskatutako diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

12.-LARRIALDI HUMANITARIOETARAKO NAFARROAKO SUHILTZAILE TALDEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Larrialdi humanitarioetarako Nafarroako suhiltzaileen taldeak aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz 2016ko aurrekontuan ez dagoela aurreikusi horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Larrialde Humanitarioetarako Nafarroako Suhiltzaile taldeari eskatutako diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

13.-LARRETAKO LURRA SALTZEKO ESLEIPENA.

Arantzako Udalak erabaki zuen Larreta alderdiko 5. poligonoko 420. lur zatia enkantearen bidez saltzeko espedientea onartzea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Ikusirik espedientean jarraitu direla toki entitateen ondasunak eta kontratazioari buruz indarrean dauden arauak.

Ikusirik Kontratazio Mahaiaren akta.

Kontuan hartuz proposamen bakar bat aurkeztu dela: Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunarena, eta baldintza pleguan eskatutako guztia aurkeztu duela.

Kontuan hartuz sesta emateko epean ez dela proposamena hobetu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunari esleitzea, behin betikoz, 5. poligonoko 420. lur zatia 64.100,00 eurotan, BEZ kanpo.

2) Esleitzailari akordio hau jakinaraztea eta pleguaren arabera, 10 eguneko epea ematea kontratua sinatzeko eta ondoren eskritura publikoa ere sinatzeko

3) Akordio hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

14.-ETXEETAKO UR ABERIEN MOLDAKETAK.

Aztertu da etxeetan ur aberiak izaten direnean nola kudeatu eta kobratu ur erreziboak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Etxe barnean daudenean fugak ikusi, ziurtatu eta aurreko erreziboarekin konparatu ondoren, gainditzen duen kontsumoaren erdia kobratzea partikularrei.

15.-UDALBIDEKO HITZARMENAREN ONESPENA.

Ikusirik Udalbide Elkarlan Elkarteak aurkeztutako hitzarmena, EITBko seinalea igortzeko instalakuntzen lagapen kontratua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako hitzarmena onartzea.

2) Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

16.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 142. ebazpenetik 160. ebazpena arte.

17.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

18.-ARANTZAKO ESKOLA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Arantzako Eskolak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Integrazio sozialerako antzerki tailerra antolatzeko.

Ander Almandoz Indakoetxea jaunaren kontrako botoarekin eta gainekoen aldeko botoekin, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Eskolari 300,00 euroko diru laguntza ematea aipatutako proiektuarentzat.

Bertzerik gabe, gaueko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn

